

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 2343

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez, Mutiloa eta Zeraingo udalerriek osatutako elkartzea eratzten baita, Estatuko gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako Idazkaritza lanpostua elkarren artean mantentzeko.*

Mutiloa eta Zeraingo udalerrien osoko bilkurek, 2024ko otsailaren 28an eta martxoaren 4an hurrenez hurren, izandako bileretan onartu zuten, bi toki-erakundeen arteko elkartea eratzeko prozedurari hasiera ematea, Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarra elkarrekin mantentzeko helburuz.

Horri dagokionez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua aurreikusten du toki-korporazio guztietan gaikuntza nazionalako toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak direla: a) idazkaritzakoak, fede publikokoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak barne; eta b) ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diru-zaintzakoak eta diru-bilketakoak.

Era berean, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, Estatuko gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 9. artikuluan aurreikusten du zerbitzu- edo baliabide-bolumen nahikorik ez duten toki-erakundeek Idazkaritza lanpostuari elkarrekin eta elkartuta eusteko aukera; horrela, tokiko erakundeak elkartzea salbuespena da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan jasotako printzipio orokorraren aldean.

Beraz, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 9. artikulua araberan, autonomia-erkidegoei dagokie, beren arauen arabera, tokiko erakundeen elkarteak sortzea eta desegitea, beren lurralde-eremuaren barruan, dagokion probintzia-diputazioak txostena egin ondoren. Elkartzea sortzea onartu ondoren, ondoriozko lanpostua autonomia-erkidegoak sailkatuko du, Errege Dekretuaren II. kapituluaren ezarritako irizpide aplikagarrien arabera.

Gauzak horrela, prozeduraren instrukzio-aldian, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion txostena eman zezala aipatutako toki-erakundeen eskaerak zirela eta; Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak eskatutako txostena jaso du. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik aldeko txostena ematen zaio Estatuko gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako Idazkaritzako lanpostu bakarra elkarrekin mantentzeko helburuz, bi toki-erakundeen arteko elkartzea eratzeko eskabideei.

Elkarte berriaren lanpostuaren sailkapenari dagokionez, kontuan edukita udalerrri horietako biztanleriak eta udalek kudeatzen dituzten aurrekontuak, bidezkoa da elkarte berriaren Idazkaritza hirugarren mailakoak sailkatzea, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Hori dela eta, aipatutako legediari eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikuluari jarraituz, honako hau

## EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Mutiloako eta Zeraingo udalek osatutako elkartzea eratzea, Idazkaritza lanpostua elkarren artean mantentzeko.
2. artikulua.– Elkartzearen Idazkaritza hirugarren mailakotzat sailkatzea. Lanpostua Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalako Estatuko gaikuntza duten Toki-administrazioari funtzionarioentzat gordeta egongo da.
3. artikulua.– Lanpostu hori betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa izango da.
4. artikulua.– Elkartzearen hiriburutza Mutiloa udalerrian egongo da.
5. artikulua.– Mutiloako eta Zeraingo udalek lanpostu hori haien lanpostu zerrendetan gehitu beharko dute lanpostua bete baino lehen.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Erakunde Harremanetarako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, eta hargatik eragotzi gabe errekurtsioa aurkezteko xedez zuzenbidean onartutako edozein bide erabiltzea.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraituz, administrazio publikoek ez dute administrazioarekiko errekurtsorik jartzetik izango ebazpen honen aurka. Hala ere, ebazpen hau errekurritu daiteke EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, 29/1998 Legearen 45. eta hurrengo artikuluen arabera. Halaber, aurretiaz eta epe berean, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritza honi eskatu ahalko diote ebazpen hori baliogabetzeko edo errebokatzeko, 29/1998 Legearen 44.1 artikuluan ezartzen denari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,  
EVA LEJARCEGUI BARRENA.